



PIZTU TOLOSALDEA ENERGIA PLANA

2021 – 2024

ESKUALDEKO DIAGNOSTIKOA ETA EKINTZA
PLANAREN EGITURAKETA
(Eguneraketa)

Edukia

Dokumentu hau Tolosaldea Garatzen S.A.k egin du,
Asier Larretxea Barja eta
Carmen Martinez de Lejarza Amenabar-en laguntzarekin

Aurkibidea

I.	SARRERA. PIZTU TOLOSALDEA PLANAREN BERRIKUNTZA.....	3
II.	TOLOSALDEAKO ENERGIA PLANERAKO DIAGNOSTIKOA.....	5
1.	Politika Energetikoak	5
	Nazioartea	6
	Europa: Zuzentarau eta Estrategiak	6
	Estatu espainiarra PNIEC eta autokontsumo dekretuak	7
	Euskal Autonomi Erkidegoa	8
	Gipuzkoako Lurralde historikoa.	9
2.	Sozioekonomia	11
	Eskualdeko enpresak	13
	Eskualdeko eraikinak	15
	Energia pobrezia	15
3.	Energiari lotutako informazioa	16
	Kontsumoari lotutako datuak	16
	Prezioen bilakaera	22
	Energia berriztagarriak	24
	Mugikortasuna eta energia	27
4.	Eragileekin elkarlana.....	29
	Eskualdeko eragile nagusien identifikazioa	29
	Udal beharren identifikazioa	29
5.	Tolosaldea Garatzenen Eskumenak.....	30

	Energia Finantzaketa eta lan taldea	31
III.	ENERGIA GAI NAGUSIAK ETA TOLOSALDEA GARATZENENK BETE DITZAKEEN FUNTZIOEN DESKRIAPENA	33
1.	PLANAREN helburu nagusia	33
2.	Eskualde mailan energia jasangarritasunaren inguruan Identifikaturiko gai nagusiak.....	34
3.	TGeN FUNTZIOAK Energia jasangarritasun gaietan	34
IV.	PIZTU TOLOSALDEA EKINTZA PLANA 2021 – 2024	36
1.	Piztu Tolosaldea 2021-2024 Plana	36
2.	Piztu Tolosaldea 2021-2024 planaren zirriborroa.....	38

Azken urteetan energiak geroz eta presentzia handiagoa hartu du gure egunerokotasunean. Nazioarte mailatik hasi eta udal maila arte, administrazio guztiak trantsizio energetikoa deritzon prozesu horretan murgilduta dihardute. Trantsizio Energetiko kontzeptua erabiltzen dugu azken urteetan erregai fosiletan oinarrituriko modelo batetik energia berriztagarriak erabili, energiaren erabilera arduratsua egin eta gizartearekin justua den modelo batera pasatzeko ematen ari diren aldaketa guztiak biltzeko.

Tolosaldeko udalak ere eraldaketa horretako ekintzaile dira bai beren bide propioan baita Foru Aldundiaren bitartez gauzatutako hitzarmenaren aterpean ere.

Honela, 2015etik gaur egun arte, Tolosaldea Garatzenek, udalekin batera, energia jasangarritasunaren inguruko ekintza eta proiektu ezberdinak martxan jartzen joan da, Piztu Tolosaldea 2015-2020 planaren inguruan.


Epealdi berriari begira 2020urtean, orain arteko lanak aztertu, inguruko egoeraren analisia egin da eta hurrengo urteetarako plan berri bat diseinatzeko lanak burutu dira.

I. SARRERA. PIZTU TOLOSALDEA PLANAREN BERRIKUNTZA

Edukiak eta egitura:

Txosten honetan hurrengo edukia aurkezten da:

- Lehendabizi, Tolosaldeako Energia Diagnostikoa eguneraturik aurkezten da.
- Ondoren, diagnostiko horretan oinarriturik, Planaren helburua, energia gaietan TGek edukiko dituen funtzioen eta landu beharreko gaien laburpena aurkezten da.
- Azkenik, 2021-2024 urteetarako Tolosaldea Garatzenen energia plana aurkezten da.



Egin den diagnostikoa energia plana gauzatzeko beharrezkoa den informazioa bilduz osatu da. Lehendabizi lege eta araudiaren errepaso bat egiten da, non eskualdeari eragiten dien dokumentu nagusiak aztertu diren.

Jarraian eskualdearen berezitasun sozioekonomikoen lanketa burutu da, hala nola herri kopurua, egitura demografikoa jarduera, ekonomiko nagusien azterketa,...

Ondoren energiari lotutako eskualdeko analisisa gauzatu da, non txostenean eskualde mailako datu metatuak agertzen diren, udal mailako lanketa ere egin delarik. Hemen, sektore desberdinen kontsumoak, energiaren prezioen bilakaera eta energia berriztagarrien presentzia eskualdean landu dira hurrenez hurren.

Planifikazio honek izango dituen eragileen eta azterketa egin da, beraien beharrak identifikatuz. Eta azkenik, Tolosaldea Garatzenek lanketa guzti hau burutzeko dituen eskumenen analisi bat gauzatu da.

Guzti honetatik, eskualde mailan garrantzia handiena duten energia gaiak identifikatu dira. Honetaz gain, Tolosaldea Garatzenetik hurrengo urteetan burutu beharreko funtzio nagusiak identifikatu dira.

Aurreko analisisian oinarriturik, Piztu Tolosaldea 2021-2024 plana deskribatzen da. Planak perspektiba funtzionala du eta batez ere hurrengo urteetan Tolosaldea Garatzenetik aurrera eramango diren funtzioak, lan lerroak eta ekintzak definitzen ditu.

Diagnostikoa burutzerakoan ondorengo gai nagusiak jorratu dira eta jarraian datorren atalak informazio guzti hori biltzen du.

Diagnostikoa jorratzen diren gai nagusiak



II. TOLOSALDEAKO DIAGNOSTIKOA

ENERGIA

PLANERAKO

1. POLITIKA ENERGETIKOAK

Gaur egungo klima aldaketa eta energia trantsizio testuingurua dela eta, eskala guztietan arau, proposamen eta lan lerro desberdinak garatzen ari dira, eskala altuenetik hasi eta gertukoena arte.

Hurrengo taulak, dokumentu nagusiak aipatzen ditu.

Nazioartea		Estatua		EAE	Gipuzkoa
GJH	Europar estrategiak	PNIEC	Autokontsumo dekretuak	Energia Estrategia Klima Estrategia 4/2019 Legea	Klima Estrategia Energia Estrategia

Nazioartea

Nazioarte mailan Garapen Jasangarriko Helburuak eta Klima Akordioa (Pariseko Akordioa) dira erreferentzia nagusi.

Garapen Jasangarrien Helburuak 2030 Agendan barneratzen dira eta egun nazioarteko jasangarritasun helburu nagusiak finkatzen dituzte. Zentzu honetan, estatu, herri eta erakundeak helburu hauek betetzera konprometitzen dira. Euskadi ere atxikitua dago GJHtara, Agenda 2030 bere eginez.

Zentzu honetan, gauzatzen diren politikek, helburu hauek betetzen laguntzen dute eta energiaren kasuan 7. eta 13. helburuak dira zuzenean lotuta daudenak. Helburu hauek honela definitzen dira.

- 7. helburua: Energiarako sarbidea funtsezkoa denez gero, guztietarako energia eskuragarri, seguru, iraunkor eta modernorako sarbidea bermatzea.
- 13. Helburua : Klima-aldaketari eta bere efektuei aurre egiteko presazko neurriak hartzea. Bitartean, Europar Batasunak bi materialak batera lantzea kontsideratzen du bere politiken aplikazioan eraginkortasun handiagoa lortzeko.

GJHz gain nazioartean egun indarrean dagoen akordio nagusia Pariseko Akordioa da. 2015ean Parisen sinatu zen eta lurraren berotegi efektua mugatzea

du helburu nagusi. Mende amaierarako munduko tenperatura 2 °C baino gehiago igo dadila ekiditea da eta posible bada, 1,5 °C baino gutxiago.

Akordioa, 2016ko azaroaren 4an sartu zen indarrean eta Eusko Jaurlaritzaren atxikimenduaren bitartez, akordioak eskatzen dituen bete beharretara egokitzea bultzatzen du Euskadi.

Europa: Zuzentarau eta Estrategiak

Europar erakundeak zeresan eta eragin nabarmena dute bai zuzentarau baita estrategia desberdinen bitartez. Estatu kideei betebeharrak, erregelamenduak, gidak... eskaintzen dizkie, eraginkortasun energetikoa, energia berriztagarriak eta klima aldaketa gaietan. Beraz Europako erakundeetatik garatutako zuzentarau eta erregelamenduak estatu eta politikak bideratzen ari dira eta horrela, eskalaz eskala udal administrazioetara iritsi arte.

Jarraian, egun ezarritako helburu nagusiak zerrendatzen dira:

- Gutxienez, %40 BEG emisio gutxiago 1990arekin alderatuta.
- Energia-kontsumoaren %32ko gutxienezko kuota energia berriztagarriekin asetzeta.
- Gutxienez, %32,5eko eraginkortasun energetikoaren hobekuntza.

Helburu hauek martxan jartzeko, Europatik programa desberdinak aurkeztzen dira, batzuk zuzenean energia eta isurien murrizketari lotutakoak, baina beste batzuk zeharka energia gaiak lantzen dituztenak.

Lehendabizi, *Neguko paketea*¹ delakoa litzateke, “*energia garbia europar guztientzako*” estrategiaren ondorio dena². Estrategia honen bitartez, energia eraginkortasunari eta isurien murrizpenari lotutako programak garatzeko markoa landu da eta 2021-2030 urteetan 177.000 milioi eurotako aurrekontua izatea espero da. Hauekin batera, “*Sistema Energetikoaren Integratzaileko EBeko Estrategia*” eta “*Hidrogenoaren Estrategia klima-neutral baterako estrategia*” ere plazaratu dira, horrela paketearen garapen osoa gauzatuz.

Bigarren mekanismo nagusia, 2019an argitaratutako “New Green Deal” delakoa litzateke. Honek Europaren garapen sozioekonomiko jasangarriari lotutako bide-orria aurkezten du, zeinak 100.000 milioi eurotako aurrekontua duen.

Bide-orri honetan, energiak rol nagusia du. Gainera, energiatik haratago doazen baina era berean harremana duten gaiak jorratzen dira; hala nola, biodibertsitatea, elikadura, nekazaritza eta industria jasangarria, mugikortasuna, klima, etab.

Egungo COVID-19 egoera kontuan izanda, programa hauek “Next Generation” dirulaguntzetara eboluzionatu dute. Europak 750.000 milioi euroko aurrekontuarekin, bai diru laguntza zuzenen bitartez baita maileguekin ere.

Iturri hauetatik haratago Europaren kohesioko mekanismoen bitartez ere energia lantzeko politika eta bide desberdinak daude, LEADER eta FEDER fondoak, esaterako.

Estatu espainiarra PNIEC eta autokontsumo dekretuak

Estatu espainiarrak, europar eskakizunei erantzuna emanez³, 2020an bere “Plan Nacional Integrado de Energía y Clima” aurkeztu zuen Europara eta bertan 2030 eta 2050erako helburu finkoak planteatzen ziren:

- 2030erako helburuak: Guztira %23ko BEG murrizketa 1990 urtearekiko (Zeharkako Sektoreak %39) eta Energia Berriztagarrien kuota%42a izatea.
- 2050erako helburuak: Karbono neutralitatea eta sektore elektrikoa %100 berriztagarria izatea.

Energia eta isuriei zuzenean lotutako helburu zehatz hauetatik haratago, bai bizitegien zein mugikortasunaren inguruko zifra orokorrak ere aurkezten ditu PNIECak.

Estatu mailan, adibidez, 2020-2030 epealdian 1,2 milioi etxebizitza birgaituko direla edota 5 milioi ibilgailu elektriko izango dituela 2030eko parkeak dio plan honek. Guzti hau gauzatu ahal izateko 241 milioi euro mobilizatzea espero da hurrengo urteetan.

Honez gain, egun garapenean dauden beste lege eta estrategia desberdinak agertzen dira, hala nola, aldaketa klimatikoaren aurkako legea, hidrogenoaren estrategia, mugikortasun estrategia edota eraikinen birgaitzeena.

Planak aurkezten dituen helburu hauek beraz, eskala guztietara traslatatuko dira, eta era batera edo bestera eskualdean gauzatuko dira, bertako mekanismoen bitartez.

¹ <https://www.idae.es/informacion-y-publicaciones/marco-legislativo-2030-el-paquete-de-invierno> IDEAren laburpena Winter Packagek garatzen duenaren inguruan.

² Hau aldi berean 20/20/20ren jarraipena delarik:
https://ec.europa.eu/clima/policies/strategies/2020_es

³ Eskakizun hauek “neguko paketeak” garatutako gobernantza erregelamenduari ematen dio erantzuna EL REGLAMENTO SOBRE LA GOBERNANZA DE LA UNIÓN DE LA ENERGÍA Y DE LA ACCIÓN POR EL CLIMA (REGLAMENTO 2018/1999).

Tokiko energiaren alorrean estatutik gauzatutako lege aldaketarik nagusienetarikoa 2018an argitaratutako lege dekretua izan zen, non autokontsumoari loturik zegoen “impuesto al sol” delakoa ezabatu zen⁴. Are ziurtasun juridiko gehiago emateko, 2019an 244/2019 Errege Dekretua argitaratu zen autokontsumorako energia elektrikoaren baldintza administratiboak, teknikoak eta ekonomikoak zehaztuz eta erregulatuz.

Bi dekretu hauen bitartez, autokontsumo instalazioen hazkuntza espero da eraikin publiko, enpresa zein etxeetan.

Euskal Autonomi Erkidegoa

Euskal Autonomia Erkidegoan ere hainbat lan lerro daude irekiak bai GJHein lerrokatutako 2030 Agenda, Parisko Akordioa, (energia eta aldaketa klimatikoa) zein bere helburu propioak finkatzen dituen estrategiak ere.

Jarraian Eusko Jaurlaritzatik sustatu diren eta zuzenean energiarekin harremana duten lege eta estrategia nagusiak aipatzen dira.

Euskadiko Energia Estrategia 2030 eta 2050erako Klima-Aldaketaren Euskadiko Estrategia

Lehena Euskadiko Energia Estrategia litzateke, 2015ean onartuta. Bertan, helburu orokorrak aurkezteaz gain (lehen mailako energian %17ko murrizpena edota azken kontsumoan 21% berriztagarri kuota izatea) esaterako,

administrazio publikoari zuzenean eragiten dien neurria zehatzak ere aipatzen ziren:

2025 urterako ondorengo helburuak bete behar dira:

- Eraikinetan %25eko murrizpena kontsumo energetikoan.
- Eraikinen %25ak instalazio berriztagarriak izatea.
- Ordezko ibilgailuen gehitzea.

2016an, 2050erako Klima-Aldaketaren Euskadiko Estrategia aurkeztu zen eta honek Euskadi osorako helburu orokorrak planteatzen ditu 2005 urtea erreferentziaz hartuta. Isurien murrizketa: %40koa 2030 urterako eta %80koa 2050 urterako.

Bi estrategia hauek helburu orokorrak planteatzen dituzte eta batez ere administrazio publikoari egiten diete erreferentzia, nahiz eta beste sektore batzuei ere egiten dien; garraioari esaterako.

4/2019 legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa

2019ko otsailean, 4/2019 legea argitaratu zen, ordura arte administrazio publikoari bakarrik eragiten zion “178/2015 DEKRETUA, irailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzkoa” ordezkatzeko.

Lege honek eta bere garapena ekarri duen “254/2020 DEKRETUA, 2020ko azaroaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari

⁴ Lege dekretu honek besteak beste jatorri berriztagarria duen autokontsumitutako energia, edozein bidesari edo kargu ordaintzeaz salbuetsia dagoela bermatzen du.

buruzkoa” EAEko administrazioari eragiteaz gain, beste maila guztietako administrazioei, zein sektore pribatuko azpisektoreei eragiten die; industria, eraikuntza, etab.

Beraz, eta administrazio publiko bezala, Tolosaldea Garatzen zein eskualdeko udal guztiak, legearen eskakizunei erantzun beharrean aurkitzen dira.

Legeak udalek egin beharreko kudeaketa energetikoari egiten dio erreferentzia zuzenean; beraz Tolosaldeko udalek bere betebeharren baitan ondorengo ekintzak gauzatu behar dituzte besteak beste.

- Erositako energia elektrikoa berriztagarria izatea.
- Udal kontsumo eta gastu energetikoen inbentarioa edukitzea.
- Eraikinen ziurtagiri energetikoak⁵.
- Eraikinen auditoretzak⁶.
- Argiterian auditoretzak⁷.
- Auto-hornikuntza minimoa %32a.
- Energia plan bat izatea. 5.000 biztanletik beherako udalek, eskualdeko plan bat garatzeko aukera izango dute.
- Ibilgailu alternatiboak.
- Tolosa eta Villabona 5.000 biztanletik gorako udalak izanik mugikortasun plana.

Lege honen aplikazio eskala udal mailan ezartzean, eta eskakizun zehatzak eginez, udal kudeaketaren egunerokotasunean eragiten du eta, ondorioz, kontuan izateko eta presente edukitzeko dokumentu estrategiko bilakatzen da legea.

Era berean, legeak, 100 milioi euroko funtsaren sorrera aurreikusten du, tokiko eragilek ekintzak aurrera eraman ahal izateko.

Honetaz guztiaz haratago, jakina da euskal gobernutik abian dela Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketari buruzko Lege Aurreproiektua⁸. (Dokumentu hau idazterakoan, aurretiko kontsulta publikoan dago).

Gipuzkoako Lurralde historikoa.

Azkenik, Gipuzkoako lurraldeak ere bere estrategia propioak garatzen ari da bai klima baita energia gaietan ere.

Gipuzkoaren Klima Aldaketaren Kontrako Estrategia 2050 eta Gipuzkoako Energia Jasangarritasuneko Plana 2050.

2017 urtean garatutako estrategia honek, lurraldean aplikagarri diren lege eta estrategiak kontuan izanik, bere estrategia propioa gauzatu zuen: 2005 urtearekiko erreferentziarekin BEG %40ko murrizketa du helburu 2030 urterako eta %80koa 2050rako.

Egun Gipuzkoako Energia Jasangarritasuneko plana gauzatzen dabil Foru Aldundia, eta aurreko plangintzekin lerrokatuta egongo dela ziurra da.

Estrategiaren zirriborroak, ondorengo helburu nagusiak zehazten ditu:

⁵ 2022ko abenduak 31 baino lehen.

⁶ 70kW termiko baino gehiagoko instalazio termikoak dituzten eraikinak.

⁷ 2022ko azarorako auditoretzak eginak.

⁸ 2021/02/02 zabaldu dute aurrekontsulta.

1. Pobrezia eta zaurgarritasun energetikoa prebenitzea eta Gipuzkoako herritarrak ahalduntzea.
2. Aurrezpen eta efizientzia energetikoa sustatzea energia-eskariaren kudeaketa jasangarriaren alde.
3. Gipuzkoan energiaren lehen mailako ekoizpena sustatzea, eraikinetan eta hirigintzako jarduketan unitateetan autokontsumorako energia sorrera banatuko ereduen bidez eta iturri berriztagarrien eta bestelako laguntzako energia-jasangarritasuneko teknologien erabileran oinarrituta eta errendimenduen orekatuko negozio-ereduen mende.
4. %100 jatorri berriztagarria duten energien erosketa sustatzea.
5. Ekoizpen sektore guztietako tokiko aholkularitza-, teknologia-, hezkuntza-, merkataritza- eta industria-sarea bultzatzea energia-ondasun eta -zerbitzu zehatzen premia berrien esparruan inpaktu sozioekonomiko positiboagoaren mesedetan.
6. Berotegi-efektuko gasen zero isurketak sortuko dituen energiaren arloko foru-sektore publikoa sustatzea.
7. Lidergo anitzean oinarritutako tokiko energia gobernantza.

Beraz, kontuan hartuta Gipuzkoako estrategiak zehazten dituen helburuak, tokiko erakundeek badute parte hartzeko eta ekintzaile izateko aukera. Horretarako estrategiaren 7. helburuak finkatzen duen “energia gobernantzari” lotutako ekintzetan zuzenean hartuko du parte Tolosaldea Garatzenek.

Beste administrazio mailak

Plangintza guzti hauekin batera, aipatu beharrekoak dira, bai udal mailan zein eskualde mailan ere aurrera eramaten ari diren plan energetikoak. Gipuzkoako

Foru Aldundiaren laguntzaz, Tolosaldeaz gain beste 7 eskualdek ere beren “Eskualdeko Energia Planak” martxan dituzte.⁹.

Bestalde udalek ere, bai Udalsarearen inguruan, bai “Covenant of Mayors” izenpean edota bestelako metodologia erabiliz, udal energia planak diseinatu eta exekutatzen dabilta. Eskualdean Tolosa, Ibarra eta Villabonako udalak dira adibide.


⁹ Beterri-Buruntza, Debarrena, Debagoiena, Goierri, Oarsoaldea, Urola erdia eta Urola Garaia.

2. SOZIOEKONOMIA

Tolosaldeak eskualde bezala hainbat berezitasun ditu eta horrek eragina du bai bere egitura sozioekonomikoan baita egunerokotasunean ere.

28 udalerriz osatutako eskualdea da eta azken urteetan biztanleriak gora egin du. 2019an ia 48.000 biztanlera izatera iritsi ziren.

Eskualdeko populazioaren eboluzioa



Iturria: Eustat

Populazio honen banaketari dagokionez, oro har lurralde mailako egitura jarraitzen du, honek etorkizunera ekar ditzakeen erronkak kontuan izanik.

Tolosaldea Garatzenetik erronka hauen jakitun hasiak dira “zilar ekonomia” delako kontzeptuaren inguruan lanketa sakonago bat egiten eta horren adierazle “Tolosaldeko Zilar Ekonomiako Estrategia” litzateke.

Eskualdeko biztanlearen egitura adin tarteka


Eskualdeko populazioa adin tarteka			
Urtea	0 - 19	20 - 64	>= 65
2010	20,0%	62,5%	17,6%
2011	20,2%	61,8%	18,0%
2012	20,6%	61,3%	18,1%
2013	20,9%	60,7%	18,5%
2014	21,0%	60,1%	18,9%
2015	21,2%	59,5%	19,3%
2016	21,4%	59,0%	19,6%
2017	21,5%	58,6%	19,9%
2018	21,5%	58,3%	20,3%
2019	21,3%	58,3%	20,4%

Iturria: Eustat

Udalen tamainari erreparatzen bazaio, eskualdeko 19 udalerririk 1.000 biztanle baino gutxiago dituzte, 6 dira 4.000 baino gutxiagokoak eta 3 besteak. Azken hiru hauen artean, ordea, eskualdeko populazioaren %62a kontzentratzen da.

Hurrengo irudia eskualdearen atomizazioaren adierazle da.

Tolosaldeako biztanleria 2019




Iturria: Eustat

Udalerrriak sakabanatuta daude eskualdean zehar, batez ere haran eta errekez, orografia konplexuarekin. Honek landa eremu eta herriguneak sortzen ditu hauen arteko distantziak kontuan hartzekoak izatea suposatzen duelarik.

Enpleguari dagokionez, oso kontzentratuta dago batez ere handiak diren eta industria guneak dituzten udalerrietan. Ondorengo grafikoak eskualdeko enpleguaren kontzentrazioa adierazten du.

Enpleguaren banaketa % eskualdearekiko



Iturria: Eustat


Nekazaritzak ere badu presentzia, nahiz eta herri batzuetan besteetan baino pisu nabarmenagoa duen, Gaztelu, Orendain, Orexa edo Alkiza kasu, sektore honek BEGaren %10 baino gehiago suposatzen duelarik. Bai jarduera ekonomikoan zein enpleguan beraz, badu nolabaiteko garrantzia lehen sektoreak eta eskualdeko berezitasun bezala ere kontuan hartzekoa da, nahiz eta analisi energetikoa gauzatzerakoan ez dagoen sektore hauei buruzko informaziorik

Hala ere, landa eremua definitzean aukera desberdinak aurki ditzakegu. Batetik Eustatek ematen duen definizioa, populazioarekin lotuta dago "10.000 biztanle edo gutxiagoko entitate singularren multzoa; baita ere biztanle gehiago edukita, sakabanatuta dauzkatenak" bezala definitzen baitu landa eremua. Tolosaldeko kasuan beraz, Tolosa ez ezik, beste herri guztiak landa eremukoak izango

lirateke. Aldiz, Foru Aldundiaren arabera “lurraldearen %90 gutxienez landa lurak dira, basoak, belardiak eta soroak”.

Gainontzeko jarduera ekonomikoari dagokionez, eskualdeko Balio Erantsi Gordinaren ia %50 Energia, Eraikuntza eta Manufaktura industrietan osatzen dute hurrengo grafikoan adierazten den moduan.


Tolosaldeako BEG, 2017.



Iturria: Eustat.

Ikus daitekeenez, industriak pisu nabarmena du eskualdeko ekonomian. Lau udalerritan industria jardueraren ia %52a kontzentratzen dute eta 9 udalerrri %75era iristen dira.

Udalerrien industrien BEG % eskualdearekiko 2017



Iturria: Eustat.


Eskualdeko enpresak

Aipatu den moduan, industrializatutako eskualdea da Tolosaldea. Bere Balio Erantsi Gordinaren (BEG)¹⁰ %50 inguru jarduera ekonomiko industrialak osatzen baitute. Atomizazio handiko eskualdea da eta hori industrian ere islatzen da.

¹⁰ Adierazle honek, herri eta eskualdearen egitura ekonomikoa azaltzen du. Sektore bakoitzak duen pisu erlatiboa guztiarekiko, horrela sektore bakoitzean har daitezkeen neurriek izan ditzaketen eraginak kontuan hartzeko balio dezake.

Industrializazio indartsu hori, eskualdeko poligono kopuruan ere nabarmentzen da izan ere 53 daude guztira, 18 udalerritan banatuta.

Tolosaldeako poligonoak



Iturria: Tolosaldeako Enpresen Gida

Guztira eskualdean, 737 enpresa kokatzen ziren 2015 urtean eta nahiz eta azken urteetan aldaketa batzuk eman diren, oro har, egitura nahiko antzekoa mantentzen jarraitzen du eskualdeko enpresa sareak.


Enpresa kopurua, jardueraren arabera

Abelazkuntza independentea	4
Energia eta Ura	8
Material ez energetikoko eta beren deribatua eraultzea eta transformatzea. Industria kimikoa	17
Metal transformagaintza. Prezisio mekanika	176
Beste industri manufakturatzaile batzuk	149
Eraikuntza	84
Merkataritza, Jatetxeak eta Ostalaritza, Konponketak	194
Garraioak eta komunikabideak	27
Erakunde Finantziariak, aseguruak, enpresei prestatu zerbitzuak eta alokairuak	62
Beste zerbitzu batzuk	16
GUZTIRA	737

Iturria: Tolosaldeako Enpresen Gida

Tamainari dagokionez, %75a 10 langile baino gutxiago dituzten enpresek osatzen dute.

Enpresak langile kopuruaren arabera



Iturria: Tolosaldeako enpresen gida

Azkenik, jarduera sektore nagusitan banatuz gero enpresa kopurua ondorego azpisektoretara zuzenduko litzateke:

Enpresa kopurua, sektoreka

Lehen sektorea	4
Sektore energetikoa	8
Industria manufaktrua	342
Eraikuntza	84
Zerbitzuak	299

Iturria: Tolosaldeako Enpresen Gida

Nabarmen ikus daiteke beraz, bai manufaktura industriak baita zerbitzuen sektoreak duten pisua enpresa kopuruan (baita BEGan ere).

Langile kopuruaren arabera ere enpresak oso txikiak dira, langile gutxikoak, honek profil familiarra edota eskualdean errotutakoaren irudi delarik.

Beraz, eskualdeko berezitasun bezala enpresetan ere atomizazioa nagusi dela ondoriozta daiteke.

Hala ere, azpisektore bakoitzaren berezitasunak kontuan hartu beharrekoak dira edozein lanketa egiterakoan; bakoitzaren behar eta egoerak desberdintasun handiak izanik kontuan hartu behar dira profilak.

Eskualdeko eraikinak

Eskualdearen beste berezitasun bat, bizitegien sektorearekin erlazioa duena da, hauen egituraketan eta ezaugarrietan.

Tolosaldean, Gipuzkoan baino etxebizitza bakarreko eraikin gehiago dago batz bestez; hau da 2019an lurralde mailan etxebizitza mota hau %7 bazen, Tolosaldean, ehuneko hori %14ra iristen zen.

Beste berezitasun bat, eraikinen tamainan datza, izan ere, lurraldeko batezbestekoa 10 etxebizitza/eraikineko baldin bada, eskualdean batz besteko hori 7ra murrizten da.

Azken urteetan bestalde, ez da urbanizazio prozesu garrantzitsurik eman, izan ere nahiko egonkor mantendu dira familia etxebizitzaren kopurua eskualdean.

Familia etxebizitzaren eboluzioa

2010	2013	2014	2015	2016	2018	2019
21.493	21.921	22.194	22.403	22.449	22.742	22.795

Iturria: Eustat

Profil honek alde batetik birgaitze eta eraginkortasun energetikoko neurrien aplikazioa erraztu dezake, izan ere eraikin bakoitzean aurki daitezkeen eragile kopurua murrizten da.

Energia pobrezia

Zeharkakotasun nabarmena duen gaia da energia pobrezia. Gizarte zerbitzuak dira eskualdeko egoeretatik hurbilen dauden eragileak.

Faktore desberdinek hartzen dute parte errealitate hau aztertzeke garaian; baliabideak, bai giza baliabideak zein ekonomikoak, etxebizitzaren baldintzak, energiaren prezioa, etab.

Foru Aldundiaren estrategian, Energia Pobreziaren definiziotzat ondokoa hartzen dute: “etxeko beharrak asetzeko beharrezko zerbitzu energetikoetarako iritsi ezin diren etxebizitzak, edota diru-sarreraren zati handi bat gastu energetikoak ordaintzeko bideratu behar dutenean”. Erabilgarri ezin diren bestelako kontsumoak definizioan ez dira sartzen telefono- edo Interneteko zerbitzuak, garraioarentzako erregaia edo etxebizitza.

Eskualdeko analisi zehatzik ez da gauzatu gai honen inguruan, baina Gipuzkoa mailako datuek ondorengo errealitatea aurkezten dute.

- Etxebizitzetatik %13,ak diru-sarreraren arabera gehiegizko gastua egiten du (39.000 etxebizitza).
- Etxebizitzetan %4,6an ezohikoa den gastu baxuegia egiten arituko lirateke energian (13.500 etxebizitza).
- Etxebizitzetatik %9an adierazi zuten, 2017an, etxea tenperatura egokian (20°C) ezin zutela mantendu hilabete hotzetan (26.500 etxebizitza).
- Etxebizitzetatik %3,8an adierazi zuten atzerapenak izan zituztela ura, gas, berokuntza edo elektrizitateko fakturak ordaintzerakoan estutasun ekonomikoengatik (11.000 etxebizitza)¹¹.

Eskualde mailan ez da ekintza zehatzik gauzatu gai honen inguruan, nahiz eta udal batzuk Energia Pobreziarekin lotutako ekimenak aurrera eramanez dituzten. Horren adibide, herri desberdinetan egindako diagnostikoak izan litezke, Lanbide Heziketa Zentroarekin elkarlanean egindakoak edota puntualki udalek gauzatutako galdetegiak.


3. ENERGIARI LOTUTAKO INFORMAZIOA

Eskualdeko diagnostikoa osatzeko, jarraian, energiari lotutako informazio zehatzagoa aurkezten da, orokorra eta sektoreka. Aurrez adierazi behar da, informazio guztia eskualde mailan metatua egon arren, udal mailako datuak ere eskura daudela, baina ez direla dokumentuan jarri, arinagoa izan dadin.

Kontsumoari lotutako datuak

Ihobeko datuetan oinarrituta, Tolosaldean eman den urteko energia kontsumoa grafiko honetan laburbiltzen da. Datu hauek, eskualdeko elektrizitate, gas natural eta erregaien datuak aurkezten dituzte.

Tolosaldeako energia datuak



Iturria: Ihobe

¹¹ 2050JEEZ. 30.orrria

Aipatu beharra dago, badirela eskualdean herriak non ez duten, tutu bidezko gas naturalik, beraz, bai PLG eta baita Gasolioaren presentzia handiagoa da eskualde honetan lurraldeko beste puntu batzuetan baino. Sektoreka analisia egitean, zehaztasun gehiagorekin aurkeztuko da, baina hori da etxebizitza eta zerbitzuen sektorean erregaien hauen presentzia egoteko arrazoia nagusia. Bestalde, industrian ia ez dute erregaiek presentziarik.

Kontsumo datuak erregaika eta sektoreka

Datuen iturria: IHOBE	Elektrizitatea (GWh)			
	2016	2017	2018	2019
Etxebizitzak GWh %	12%	12%	12%	12%
Zerbitzuak GWh %	13%	12%	12%	12%
Manufaktura- eta Eraikuntza-industriak GWh %	76%	77%	76%	77%

Datuen iturria: IHOBE	Gas naturala (GWh)			
	2016	2017	2018	2019
Etxebizitzak GWh %	3%	7%	3%	4%
Zerbitzuak GWh %	3%	5%	3%	3%
Manufaktura- eta Eraikuntza-industriak GWh %	95%	88%	95%	94%

Datuen iturria: IHOBE	Gasolioa (GWh)		
	2016	2017	2018
Etxebizitzak GWh %	65%	65%	65%
Zerbitzuak GWh %	35%	35%	35%

Datuen iturria: IHOBE	PLG(GWh)		
	2016	2017	2018
Etxebizitzak GWh %	88%	88%	92%
Zerbitzuak GWh %	12%	12%	8%

Iturria: Ihobe


Jarraian, sektore bakoitzaren azterketa zehatza burutzen da.

Industria

Aurretik esan bezala industrializatutako eskualde bat da. Honela, Ihoberen datuen arabera, 2019an eskualdeko industriak elektrizitatearen %77a eta gas naturalaren %94a kontsumitu zuen. Kontuan izan behar da, eskualdean badirela enpresak (8 zehazki), PRTR-España Isuri eta Iturri Kutsatzaileen Estatuko Erregistroan sartuta daudenak eta hauen kontsumoak ez dira datu hauetan ageri.

Enpresa hauek, beren kontsumo altuak direla eta, arreta berezia jarri behar dute, izan ere oso kontrolatuta izan behar dituzte beren isuriak, hots, kontsumoak.

Eskualdeko industriaren kontsumoen eboluzioa¹².



Esan liteke, batez ere gas naturala dela eskualdeko industrien kontsumitzen duten energia mota nagusia, izan ere ia ez dago gasolio edota PLGaren presentziarik. Elektrizitateari dagokionez, azken urteetan 300GWhko guztizko kontsumoaren inguruan dabilta.

Eskualdeko enpresen gida oinarri hartuta, 427 enpresa industrial identifikatzen dira eskualdean; aurretik esan bezala, mota eta jardura guztietakoak.

Industriaren energia profilak nolakoak diren jakiteko energia analisi zehatz bat burutzeak egun ez dauka zentzu handirik, batez ere, ez dagoelako zehaztasunik, ez enpresen alorreko informazioan ezta kontsumoen inguruan ere. Enpresa mota bakoitzak bere energia kontsumo partikularrak izango ditu, ezaugarrien arabera.

Hala ere ezin daiteke uka lan lerro interesgarria izango litzatekeenik, ez bakarrik zenbat kontsumitzen duten jakiteko, baizik eta beren prozesua produktiboa aurrera eramateko energia nola erabiltzen duten jakin, aurrera begira etorriko diren berrikuntzak nola barneratu ezagutzen joateko¹³.

Administrazioa

Administrazioa, oro har, eragile oso garrantzitsua izan ohi da, baita Tolosaldean ere. 28 udalerrri izanik, 28 udaletxe (udal eraikin) daude gutxienez eta honi administrazio bakoitzak dituen zerbitzu propioak gehitu behar zaizkie. Bestalde, gehienak tamaina txikikoak izanik, mugatuagoak izaten dira ematen diren zenbait zerbitzutan.


Aurrera begira, udalek beren energia kontsumo eta gastuen analisisa gauzatu dituztenez atal honetako informazioa askoz ere zehatzagoa izango da eta profil antzekoak diren udalen arteko konparaketak egiteko aukera egongo da.

Jarraian aurkezten den grafikoak eskualdeko udalen kontsumoak adierazten ditu.

¹² Enpresa hauek, analisi energetikotik kanpo geratzen dira, ez baitute bere kontsumoen informaziorik Ihoberi luzatzen.

¹³ 4/2019 legearen harira, kontsumo altuko enpresak behartuta daude energia kudeaketa sistemak izatera eta horrekin lanketa erraztu daiteke.

Tolosaldeako udal administrazioaren kontsumoen eboluzioa



Iturria: Ihobe

Elektrizitatearen kasuan, beherako joerarekin jarraitzen da. 2018an igoera txiki bat eman zen arren, azterketa historikoa eginez, beherako joera hori nabarmena da¹⁴.

Aldiz, gas naturalaren kontsumoak ikaragarri egin du gora, baina jasotako informazioaren arabera Tolosako igerilekuak izan duen inpaktuaren ondorio izan liteke.¹⁵

Administrazioari eragiten dion beste aldagaietako bat, administrazioak biztanleko duen energia kontsumoa litzateke.

Ondorego taulak, udalerrri bakoitzak biztanleko duen kontsumoa jasotzen du. Bataz bestekoa 111 kWh biztanleko eta 101kWh biztanleko izan ziren 2018 eta 2019 urteetan, hurrenez hurren.

Udal kontsumoa/biztanleko

Elektrizitatea kWh	kWh/biz/2018	kWh/biz/2019	Elektrizitatea kWh	kWh/biz/2018	kWh/biz/2019
Orexa	472,35	475,00	Abaltzisketa	174,39	174,04
Aduna	386,08	365,18	Alegia	192,52	172,49
Alkiza	375,30	349,76	Albiztur	191,24	158,67
Altzo	372,14	308,62	Belauntza	157,80	155,20
Ikaztegieta	325,65	300,05	Berastegi	156,18	150,09
Baliarrain	479,87	278,52	Elduain	132,96	148,76
Gaztelu	258,79	246,60	Berrobi	134,92	145,24
Bidania-Goiatz	289,07	233,58	Villabona	142,95	139,50
Orendain	368,40	233,24	Ibarra	159,62	138,25
Leaburu	297,47	210,25	Anoeta	143,07	133,70
Zizurkil	219,78	201,15	Amezketza	127,33	117,81
Irura	215,58	199,69	Larraul	121,50	103,33
Asteasu	207,35	190,81	Tolosa	76,94	66,72
Hernialde	162,71	183,93	Lizartza	85,42	64,91

Iturria: Ihobe

Datu hauen azterketan ordea, ondorioak ez dira zuzenekoak izan ere udalerrriak ez dira alderagarriak bata bestearekin. Eskaintzen dituzten zerbitzuak ez dira berdinak eta horrek eragin handia izan dezake batzuen eta besteen artean.

Honez gain, herrigunearen tamainak kontsumoan izan dezakeen eragina, esaterako, nabarmena da, argiteria publikoa dela eta. Beraz, ahalik eta konparaketa fidagarriena egiteko, biztanleria, ezaugarri eta azpiegitura antzekoa duten udalerrrien artean konparatu beharko litzateke¹⁶.

¹⁴ 2015ean egindako diagnostikoari egiten zaio erreferentzia non, 2010-2014 elektrizitate kontsumoen eboluzioa azpimarratzen den.

¹⁵ Tolargiren datuak falta dira.

¹⁶ 4/2019 legeak eskatzen duen energia inbentarioaren bitartez, ariketa hau era erraz batean egin ahalko litzateke.

Administrazio publikoari eredugarri izatea eskatzen zaio; horregatik, hainbat dira eskualdean energia berriztagarrien eta mugikortasun elektrikoaren inguruan apustua egiten ari direnak, bai instalazio fotovoltaiakoak edota biomasako galdarak ezarriz edota ibilgailu elektrikoez hornituz.



Zerbitzuak

Zerbitzuen sektorea, industria bezala, oso ezaugarri desberdineko enpresez osatua dago, bertan sartzen baitira, denda txikiak, supermerkatuak, okindegiak edota ostalaritza.

Beraz, sektorearen kontsumo datuak aztertzerakoan argazki orokor bat bakarrik eman daiteke.

Aipatu bezala, eskualdeko elektrizitate kontsumoaren %13 suposatzen du eta zerbitzuen sektoreak eta gas naturalaren %3 besterik ez.

Zerbitzu sektorearen kontsumoak



Esanguratsua da ordea bai gasolio eta bala PLG kontsumoaren presentzia izan ere 2019an %35 eta %12 suposatzen zuten besteak beste. Honen arrazioa, hasieran esan den bezala, udal batzuek tutu bidezko gas naturalik ez izatea litzateke, beraz beren bero beharrak erregai hauek erabiliz asetu behar dituzte.


Eboluzioei dagokienez, ikus daiteke, elektrizitate eta PLG kontsumoak nahiko egonkorak izan direla azken urteetan, aldiz, gas natural el gasolioan aldakortasun nabarmena ageri da.

Azkenik aipatu, eskualdeko energia planaren baitan, lehengo urteetan, sentsibilizazio eta informazio kanpainak aurrera eraman izan dira eta horrekin lotuta batez ere merkatariei zuzendutako ekintzak burutu dira "Efizientzia gida merkataritza" esaterako.

Etxebizitza sektorea. Eraikitakoa.

Etxebizitzaren kontsumoei erreparatuz gero, petroliotik eratorritako erregaien presentzia aipatu behar de lehenik. Esan den bezala, badira herriak non ez den iristen tutu bidezko gasik, beraz, gasolioa edota PLGa erabiltzera behartuak daude.

Etxebizitza sektorearen kontsumoen eboluzioa (GWh)



Iturria: Ihobe

Nabarmendu daiteke, orokorrean elektrizitate kontsumoa nahiko egonkor mantendu dela azken urteetan, baina bai gasolioa eta baita PLGaren kasuan goranzko joera izan dute¹⁷.

Kontuan hartu beharra dago, etxebizitza sektorearen berokuntza sistemen kontsumoa neguko tenperaturekin erlazionatuta dagoela zuzenean. Hala ere ezin da zehaztu, 2017ko etxebizitza sektorean eman zen gas natural kontsumoaren igoerari buruzko arrazoirik.

Kontsumo orokorrak ikusita, gaia sakontzean, eraikuntza sektorea eta energia aldagaia aztertzerakoan kontuan izan beharreko bektore nagusienetakoa eraikitze urtearekin lotuta dago, izan ere, Eraikuntza Kode Teknikoa (EKT)

eraikinek izan behar dituzten baldintzak zehazten dituen kode teknikoak, denborarekin joan baita energia eraginkortasuna bertan sartzen¹⁸.

1980. hamarkadan hasi ziren EKTan aldagai energetikoa kontuan hartzen, batez ere isolamendu termikoarekin lotuta (paretak, leihoak,...) Kodeak jasan dituen aldaketekin pixkanaka-pixkanaka etxebizitzaren energia beharrak murrizteko mugak jartzen joan direlarik.

Eskualdeko eraikinen eraikitze datari erreparatuz, %62ak, hasiera batean behintzat ez dauka inongo isolamendurik. Honek etxebizitzetako energia beharrak altuak izatea suposatzen du eta egoera zaurgarrian aurkitzen diren kolektiboentzako egoera oso konplikatuak bilaka daitezke.

Arazo honi erantzuna emateko moduetako bat eraikinetan eraginkortasun energetiko neurriak hartzea da.

Tolosaldeako eraikinen % eraikitze urtearen arabera

Eraikitze data		Acum
<=1900	9,02%	9,02%
1901-1940	6,52%	15,53%
1941-1950	3,64%	19,17%
1951-1960	7,53%	26,71%
1961-1970	16,67%	43,38%
1971-1980	18,83%	62,21%
1981-1990	9,50%	71,71%
1991-2000	15,03%	86,74%
2001-2010	12,05%	98,79%
>=2011	1,21%	100,00%

Iturria: Eustat.

¹⁷ 2016, 2017 eta 2018ko datuak erakusten ditu grafikoak

¹⁸ EKTari buruzko informazio gehigarria Eranskinean jasotzen da.

Sektorearen egoera aurkezteko bigarren aldagaia Eraikinen Ziurtagiri Energetikoa da. Ziurtagiri honek, etxebizitza edo eraikinaren baldintza estruktural eta konstruktiboetan oinarrituta, kalifikazio energetiko bat ematen dio eraikin edo etxebizitzari, zenbat eta kalifikazio okerragoa, orduan eta kontsumo energetiko altuagoa beharko dute etxebizitzek tenperatura egoki bat mantentzeko. Hemen esan beharra dago, egoera zaurgarrian aurkitzen diren etxebizitza askok ez dutela kontsumo energetikorik burutzen¹⁹.

Honez gain, 4/2019 legearen eskakizunekin lotuta, kontuan izan behar da 2022ko abenduak 31rako EAEko eraikitako etxebizitza guztiek bere ziurtagiri energetikoa izan behar dutela.

Alde honetatik, eskualdearen egoera nahiko positiboa da, izan ere, eskualdeko etxebizitzek %40ak dagoeneko badauka zertifikatua. Udalerrri bakoitzari dagokionez proportzioak ordea oso desberdinak dira.


	Abaltzisketa	Aduna	Albiztur	Alegia	Alkiza	Altzo	Amezketza
Zertifikatu kop	163	217	175	856	169	198	486
Guztiarekiko %	12%	26%	15%	39%	12%	14%	23%
	Anoeta	Asteasu	Baliarrain	Belauntza	Berastegi	Berrobi	Bidania-Goiatz
Zertifikatu kop	904	695	62	135	570	282	283
Guztiarekiko %	40%	27%	8%	24%	24%	39%	17%
	Elduain	Gaztelu	Hernialde	Ibarra	Ikaztegieta	Irura	Larraul
Zertifikatu kop	126	80	131	1.903	202	803	107
Guztiarekiko %	21%	10%	22%	40%	33%	59%	7%
	Leaburu	Lizartza	Orendain	Orexa	Tolosa	Villabona	Zizurkil
Zertifikatu kop	190	360	118	54	9.454	2.774	1.298
Guztiarekiko %	28%	45%	15%	6%	49%	37%	29%

Datuak familia etxebizitzetan daude oinarrituak

Iturria: Eustat eta Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza.

Kalifikazio horien emaitzak, aldiz, gainontzeko lurraldekoen pare aurkitzen dira, E kalifikazioa delarik bizitegi gehienek lortzen dutena.

Eskualdeko Ziurtagiriak



Iturria: Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza.

Eskualdeko argazki honek, ideia bat ematen digu, eskualdeko biztanleriak dituen etxebizitzek inguruan. Potentzial handia dago bai birgaitzerako, zein energia erabileraren aldaketarena.

Prezioen bilakaera

Energiaren prezioei dagokionez, azken urteetan erregai eta energia iturri guztien prezioek goranzko joera izan dute oro har. Kontsumitzaile mota bakoitzak ordaintzen duen azken prezioaren analisia eginez gero, azterketa zehatza


¹⁹ Ziurtagiri energetikoaren inguruko informazio gehigarria Eranskinean jasotzen da.

gauzatzeko aldagaiak biderkatzen dira (tarifak, potentziak, zergak...). Honez gain, bertoko analisi bat egitearen zailtasuna gehitzen zaio informazio faltagatik.

Horrela, azterlan desberdinetan jasotzen diren datuak ontzat harturik, Tolosaldeako biztanleek energiagatik ordaintzen dituzten prezioak eta azken urteetako hauen eboluzioak jasotzen dituzte ondorengo grafikoek.


Elektrizitate eta gas naturalaren amaierako prezioaren eboluzioa (€/kWh)

etxebizitzaren kontsumorako



Iturria :Gipuzkoako Foru Aldundiaren Pobrezia Energetikoaren Behatokia

Euskadiko etxebizitza sektorearen faktura



Iturria: EEE. Euskadi energia 2019.

Bi kasu hauetarako esan liteke, prezio azterketak Tolosalderako balio dezaketela. Honek esan nahi du 2019 Tolosaldeako biztanle batek batz bestea 485€ gastatu zituela bere faktura energetikoa ordaintzen eta 1.148€ etxebizitza bakoitzak.

Hala ere, Eustaten arabera, Euskadiko familien gastua, Estatukoekin alderatuz desberdina da. Hurrengo taulak jasotzen du informazio hori.

Energia gastuen konparaketa- Euskadi vs. Espainia

€/biztanleko	Elektrizitatea	Gas naturala	Beste erregaiak	Guztira
EAE	292,4 €	167,3 €	24,8 €	484,5 €
Espainia	320,6 €	111,8 €	40,9 €	473,3 €


€/etxebizitzako	Elektrizitatea	Gas naturala	Beste erregaiak	Guztira
EAE	693,1 €	396,4 €	58,8 €	1.148,3 €
Espainia	797,8 €	278,3 €	101,9 €	1.178,0 €

Iturria: Eustat


Nahiz eta aldea ez den nabarmenezkoa, batez ere berokuntza sistemen erregaien inguruan izan daiteke desberdintasuna. Izan ere estatu mailan, elektrizitatea nagusi da berokuntza/hozokuntza sistemarako, aldiz EAEn gas naturala da.

Garraiorako erregaien prezioa da egunerokotasunean eragina duen beste adierazle bat. Nahiz eta askotan ez den kontuan hartzen, mugikortasun beharrekin erlazionatuta dago eta bere eboluzioa aztertzea interesgarria da. Aldakortasun handia duen prezio bat da, baina goranzko joera mantendu du azken urteetan. Tolosaldeari ere beraz, eboluzio horrek eragiten dio.

Garraiorako erregaien prezioen eboluzioa



Elektrizitatearen Bataz besteko prezio aritmetikoa Mibel Esp



Datu hauek Espainiar ministerioak ateratzen duen hileroko txostenetik lortu dira, non Euskadiko eta Gipuzkoako datuen artean desberdintasun txiki bat dagoelarik. Hau da Gipuzkoako erregaien prezioa batzbeste 0,02 €/l garestiago da.


Azkenik, ezin da ahaztu elektrizitatearen prezioen aldakortasuna. Jakina da, estatuko elektrizitate merkatuaren diseinu eta egitura dela eta, abaguneari prezioen eboluzioari dagoela lotuta.

Ez dauka zentzurik, beraz, kontsumitzaile batek ordainduko duen batz beste prezio bat ematea, lehen esan bezala azken hau aldagai askoren menpe baitago. Hala ere ordea, MIBEL merkatu prezioaren historikoa jaso da horrela aldakortasuna ikusteko.

Energia berriztagarriak

Eskualdeko energia berriztagarrien instalazioen informazioa aurkezten da jarraian.


Tolosaldean Instalaturako potentzia berriztagarriaren eboluzioa



Nahiz eta energia berriztagarrien potentzia instalatu datuak konparagarriak ez diren, goiko grafikoak eskualdean presentzia duten energia berriztagarrien instalatutako potentzia adierazten da.


Jarraian, ordea, banakako analisia egiten da energia iturri bakoitzak izan duen eboluzioa ikusteko.

Energia hidraulikoko instalazioak energia sorkuntzara bideratzen dira eta, beraz, sektore energetikoan kokatzen dira. Egun instalatutako potentzia hidraulikoa 8.000kW da eta azken urteetan ez du aldaketarik izan. Minieolikoaren kasuan instalatutako potentzia 9kWkoa da eta beste sektoreetan zentratzen da. Honek ere ez du hazkunderik izan.




Eguzki energia termikoan instalatutako m2ak batez ere etxebizitza sektorean eman dira. Hala ere, kontuan izan behar da, eboluzio honetan agertzen diren datuek ez dituztela etxebizitza berriak kontuan hartzen²⁰.

²⁰ Datu hauek EEEk erraztu ditu eta informazioa dirulaguntzen eskaeretatik ateratzen da. Egun etxebizitza kodea dela eta, beharrekoa da berriztagarrien hornidura beraz ezin dira dirulaguntzak eskatu behar horiek asetzeko.




Biomasa etxebizitza sektorean instalatu da bereziki, baina zerbitzuen sektorean ere ikus daiteke energia mota honen presentzia. Azken urteetan instalatutako potentzia beraz mantendu egin da.



Fotovoltaikoak izan du garapen nabarmenena. Azken urteetan instalatutako potentzia 264 kWptik 2015ean 554 kWpra igo da²¹.

Sektorekako analisia eginez gero, adierazgarria da, industria sektoreak eman duen bultzada instalazio mota hauek ezartzen.

²¹ Autokontsumo dekretuen aldaketaren eragin bezala uler daiteke.




Iturria: EEE

Hala ere, orain arte instalatutako potentziak urrun daude eskualdearen behar energetikoa asetzetik, baina joera positiboa dirudi.

Azkenik, hurrengo irudiak 2019an udalerri bakoitzak instalatutako potentziak energia sektoreka irudikatzen ditu.

2019an Udalerri bakoitzaren instalatutako potentzia energiakia



Iturria: EEE

Mugikortasuna eta energia

Mugikortasunak energiaren kontsumoan duen eragina ezin daiteke uka, izan ere, aukeratutako sistemaren arabera energia kontsumoa zeharo desberdina izango baita. Garraio publikoa erabiltzea, garraio pribatua erabiltzea baino energia kontsumo txikiagoa suposatzen du bidaiariko. Era berean, ez da berdina trenetaz mugitu edota autobusez, lehenak elektrizitatea erabiltzen baitu eta bigarrenak erregai fosilak, nahiz eta gero eta gehiago diren bestelako erregaiak erabiltzen dituzten autobusak bioerregaik edota aztertzen hasi diren hidrogenoa esaterako. Beraz, nabarmena da energia eta mugikortasunaren arteko erlazioa.

Hala ere mugikortasunak energiatik haratago dauden aldagaiak hartzen ditu kontuan; izan ere, mugikortasunaz hitz egitean, pertsona eta merkantzien garraioaz ari gara. Gainera, desplazamendu hauek pertsonenak ala merkantzienak, motorizatuak (trenetaz, autoz, motoz) ala ez motorizatuak (oinez, bizikletaz) edota hainbat arrazoiengatik, ikastera joateko, lanerako edota aisialdirako izan daitezke.

Tolosaldearen kokaera estrategikoa da. N-1 errepideak eskualdea zeharkatzen du eta honek trafiko handia jasatea suposatzen du, ez herri arteko desplazamenduengatik, baizik eta transitoko errepide bat delako.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuko Errepideetako Zuzendaritzak Aforo Plan bat dauka egituratuta. Eskuratutako datuak sistema informatiko batean sartzen dira, eta prozesatu ondoren, Zirkulazio Ingeniaritzan erabilitako parametroen zerrendak sortzen ditu. Datu hauen arabera, eguneko batez besteko intentsitatearen adierazleak neurtuta (EBBI²²) 2019an egunean 34.248 ibilgailu jaso zituen Tolosako Saihesbideko neurgailuak. Ezin da zehatu, hauetako zenbat diren eskualde arteko

desplazamenduak eta zeintzuk zeharkakoak, baina datua esanguratsua dela ezin uka.

EEBI N-1 errepidean

Lekua	2017	2018	2019
Ikaztegietako saihsbidea	32.721	34.087	34.552
Tolosako Saihsbidea	32.983	33.838	34.248
Irura	36.088	37.485	37.959
Andoain, Sorabilla	45.289	46.720	47.315

Gipuzkoako Errepideetako Aforoei Buruzko Informazioa. 2019ra Arteko Bilketa


Honez gain, herri arteko desplazamenduak ere kontuan izan behar dira, izan ere oso atomizatutako eskualdea da eta horrek mugikortasun beharrak areagotzen ditu. Adibidez, landa eremuko herri txikietatik azpiegitura gehiago dituzten herrietara joan behar izanak, eskolara adibidez, mugikortasun beharrak biderkatzen ditu.

Mugimendu hauetatik haratago, udalerrian bertan egiten direnak ere kontuan izan behar dira. Esaterako, eskualdeko zenbait udalek garatu dute bere mugikortasun plan propioa, Ibarra, Tolosa edota Villabona. Gainera, azken bi hauek 5.000 biztanletik gorako populazioa izanik 4/2019 legearen betebeharrei erantzuna ematen die.

Orain arte aipatutako aldagaiak, eskariarekin erlazionatuta daude, hots, desplazamenduen beharrekin. Mugikortasun eskaintza kontuan hartzen bada, errepide sare sendoa, (garraio publiko zein pribatuarentzako) tren zerbitzua eta baita bide-gorri sare bat ere badute eskualdean (azken hau Gipuzkoako foru Aldundiarekin adostu nahian dabilta).

Autobus zerbitzuari dagokionez, Lurraldebusen bitartez kudeatzen dira linea gehienak. Guztira 8 linea erregular, institutuarekin zuzenean lotzen duen linea bat eta Donostiarekin lotzen duen beste bat leudeke. Haez gain, 10 eskaripeko linea daude, eta 3 dira gaueko zerbitzua ematen duteak. Hurrengo mapa adierazten ditu lineak eta herriak. Tolosako udalerriaren kasuan, Tolosabusa autobus zerbitzuaren bitartez barne mugikortasuna kudeatzen dute.

Lurraldebusen eskaintza Tolosaldean



Lurraldebus

Trenari dagokionez, Renferen Irun eta Madril arteko linea erabiltzen da distantzia luzeetarako eta “Cercanias” delakoa lurralde mailako mugikortasunerako. Eskaintzen duten zerbitzuak Donostia eta Gasteiz hiriekin komunikatzeko balio dute.

Laburbilduz, mugikortasuna lantzeko, eskaria eta eskaintza uztartzea ezinbesteko ariketa da eta bai alde batean zein bestean parte hartzen duten aldagai eta eragileen kopurua kontuan izanda, energia gaietatik haratago dagoen lanketa bat merezi duen gai bat dela ondoriozta daiteke.

4. ERAGILEEKIN ELKARLANA

Eskualdeko eragile nagusien identifikazioa

Eskualdean energia gaietan zer esana duten eragileak identifikatzea funtsezkoa izango da, batetik eskualdean energiaren inguruan dauden beharrak identifikatzeko eta bestetik, ekintza ezberdinak aurrera eramatean prozesuan parte hartu dezaketen erakunde ezberdinak identifikatzeko.

Hurrengo irudiak identifikaturiko eragile ezberdinen mapa aurkezten du.

Eragileen mapa



- **Udalak:** Instalazio publikoen kudeaketa eta eskualdeko eskumen askoren kudeatzaile.
- Eskualdetik haratago dauden **energiaren inguruko beste erakunde publikoak:** Energia legedi eta estrategiak zuzendu, aholkularitza eta zerbitzuak, finantzazio iturri izateagatik²³.
- Eskualdean dauden **beste erakunde publikoak**, mankomunitateak, Tolomendi kasu.
- Bertako sektore ezberdinetako **enpresak**. Hauetariko batzuk, kontsumitzaile izatetik harago, energia gaietan zerbitzuak eta produktuak garatu ditzakete.
- Enpresa eta ekintzaitzarekin zer ikusia duten **elkarteak**, fasilitadore lana bete dezaketelarik.
- **Hezkuntza zentroak.** Kasu honetan, bertako Lanbide eskolak eta unibertsitateak energia formakuntza garatzeko aukera ematen dute. Bestetik, lehen eta bigarren hezkuntza zentroak energia kontsumitzaile eta herritar gazteengana hurbiltzeko aukera izan daiteke.
- Azkenik, udal ezberdinetako **herritarrak** kontsumitzaile moduan eta energia kultur aberria susta dadin, garrantzi berezia edukiko dute.

Udal beharren identifikazioa

Lehenik eta behin, udalak dira Tolosaldea Garatzenen partaide eta bezero, beraz, hauekin egindako bileren ondoren, beraien beharrak identifikatu eta diagnostikoa barneratu dira.

Ondorengo irudiak ekarpen nagusiak laburtzen ditu.

²³ GFAk garrantzia berezia edukiko du, TGen energia ekintzetarako finantzazio iturri nagusia bait da.



Beste eragileak

Udalez gain badira beste eragile batzuk, zeinen beharrak kontutan hartu dira; hala nola, Tolosaldea Garatzeneko beste departamenduak, gerentzia, Tolomendi, Gipuzkoako Foru Aldundia, Energiaren Euskal Erakundea...

5. TOLOSALDEA GARATZENEN ESKUMENAK

Tolosaldea Garatzen eskualde agentzia bezala, sail desberdinez osatua dago, bakoitzak ondorengo funtzioak gauzatzeko ardura nagusia duelarik:

Enplegua Garatzen:

- Orientazioa eta informazioa pertsonalizatua, indibiduala nahiz taldekakoa, enplegarritasuna hobetu eta lana non bilatu jakiteko.
- Formazioa eta prestakuntza, ikastaroak antolatzen dira lan aukerak indartu edo kualifikazioa hobetzeko.
- Enplegu Zentroa, lan eskaintzak kudeatzeko.
- Lan merkatuan zailtasunak dituzten kolektiboentzat ahaldundutze programak eta prestakuntza teknikoak eskaintzen dira.

Enpresak garatzen:

- Enpresen beharrei erantzuteko orientazioa ematen da.
- Indarrean dauden dirulaguntzen inguruko informazioa eta orientazioa eskaintzen da.
- Unean uneko egoerara egokitzeko formazio-saio eta jardunaldiak antolatzen dira.

Turismoa Garatzen:

- Ekintzaileei, enpresei eta udalei turismo jarraibideak ematen dizkiegu araudi, datu edota diru-laguntzen inguruan.
- Tolosaldea helmuga turistiko bezala sustatzeko ekintza eta komunikazio euskarrien kudeaketa.
- Turismo sektoreko eragileen arteko koordinazio eta elkarlan publiko-privatua sustatzen dugu.

- Turismo enpresa eta eragileen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko programak ditugu martxan.

Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotako finantziaketaren irudia

Ekintzailatza garatzen:

- Eskualdean enpresa ekimen berriak bultzatuko dituen zerbitzu integratuak ematen zaizkio ekintzaileari.
- Egitura erabaki eta legezko izapideak aurrera eramateko laguntza eskaintzen da.
- Enpresa kudeaketa ikastaroak antolatzen dira.
- Finantzazoa lortzen laguntzen dugu, entitate ezberdinekin ditugun hitzarmenei esker.

Dirulaguntzen laburpena	2016	2017	2018	2019	2020	Metatua
Pertsonala	17.307 €	12.590 €	20.000 €	20.000 €		69.897 €
Aholkularitza	12.000 €	15.909 €			15.246 €	43.155 €
						113.052 €
Eraginkortasun energetikoa	1.330 €	8.000 €				9.330 €
Energia berriztagarriak	2.040 €	8.250 €	15.769 €	1.162 €		27.221 €
Komunikazioa Formakuntza eta sentsibilizazioa	34.823 €		15.149 €	14.484 €	4.500 €	68.956 €
						105.508 €
Energia estrategia publikoaren garapana		1.250 €		12.269 €	21.780 €	35.299 €
						35.299 €
GUZTIRA	67.500 €	45.999 €	50.918 €	47.916 €	41.526 €	253.859 €

Energia Finantzaketa eta lan taldea

Politika energetikoen atalean garatutako programak, aurrekontu zehatzagotara bideratzen dira finantzaketa mekanismo zehatzen bitartez.

Tolosaldea Garatzenetik energiari lotutako plangintza eta ekintzak aurrera eramateko finantzazio egokia edukitzea funtsezkoa da eta orain arte jaso den finantzaketa iturri bakarra, urtero Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatzen den hitzarmenaren bitartez jasotakoa izan da.

Hurrengo taulak jasotako dirulaguntzak orokorrean zertara bideratu diren adierazten du.

Hala ere, energia gaitan datozen erronkak kontutan harturik, beste diru iturri batzuk kontutan edukitzea funtsezkoa izango da.

Europa mailatik, bai energiari zuzenean, zein ekonomia garapenari edota landa eremuei zuzenduriko programak daude.

Europar estrategietatik “neguko paketea”, “Next Generation” (COVID-aren aurkako talka-plana) eta European Green Deal (Europako Paktu Berdea) delako programek energia jasangarritasun neurriak sustatzeko, proiektu berritzaileak gauzatzeko eta ekonomia berdea bultzatzeko diru laguntza eta finantzazio aukera ezberdinak proposatzen dituzte.

Programa hauek IDAEren bitartez bideratzen dira. Urtero energiari lotutako hainbat programa gauzatzen ditu, instalazio berriztagarriei zuzenduak, ibilgailu eta elektromugikotasunarekin erlazionatutakoak edota birgaitzeetarako. Programa hauen oinarriak eta baliabideak urtetik urterako aldaketak jasaten dituzte, baina errepikakorrek dira eta, beraz, kontutan hartzekoak.

Programa hauetatik haratago ekonomiaren sustapenerako programak ere bideratzen ditu FEDER fondoetatik iristen direnak esaterako.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) bidez kudeatzen ditu, batez ere, zuzenean energiari lotutako dirulaguntzak. Urtez urte enpresa, partikular zein administrazioari zuzendutako diru laguntzak argitaratzen ditu, gehienetan baldintza eta betebeharrak antzekoekin.

Dirulaguntza hauek zuzenean energiari lotutakoak dira, eraginkortasun, aurrezpen edota berriztagarrietan oinarrituta, baina badira beste departamendu batzuen bitartez kudeatutako dirulaguntzak, zeinak zeharka energia lantzen duten.

Hauen kasu, ingurumen departamenduak aldaketa klimatikoari aurre egiteko argitaratzen dituen laguntzak, landa garapenerako LEADER fondoetan oinarrituak, edota etxebizitza departamenduak birgaitzeetara zuzentzen dituenak aurki daitezke.

Hauek guztiak kontuan izanda, finantzaketa iturri desberdinak daudela ondoriozta daiteke. Horregatik, mekanismo hauen jarraipena eta azterketa egiteak aukera berriak sor litzake.

Tolosaldea Garatzenek eta eskualdea osatzen duten udalek energia jasangarritasunarekin zer ikusia eduki dezaketen beste arloak ere lantzen dituzte (enplegu politikak, ekintzailetza, turismoa, gizarte zerbitzuak, etab.). Horregatik, beste arlo hauetan energia jasangarritasuna bultzatzeko egon daitezkeen aukerak ere aztertu behar dira.

Azkenik, barne iturrien inguruko hausnarketa egitea interesgarri izango da. Adibidez, urtez urte udalen zerga hobarien analisia gauzatzen da eta honi lotutako lanak sakontzea iturri propioen bidean lagun dezake.

Azkenik aipatu Tolosaldea Garatzeneko energia Udal Sailetik kudeatzen ditu. Horretarako, Udal teknikariaren eskumenen artean jasangarritasun, klima eta

energia gai ezberdinak daudelarik. Energia gaitan laguntzeko, gaur egun energia teknikari bat kontratatua dago.

III. ENERGIA GAI NAGUSIAK ETA TOLOSALDEA GARATZENEK BETE DITZAKEEN FUNTZIOEN DESKRIBAPENA

Diagnostikoan egindako lanketak Tolosaldean energia jasangarritasun gaien inguruan dauden erronkak azaleratu ditu. Ondoren, planaren helburu nagusia definitu, eskualde mailan garatzea espero diren gai nagusien identifikazioa eta Tolosaldea Garatzenek gai hauetan betetzea espero diren funtzioak laburbiltzen dira:

1. PLANAREN HELBURU NAGUSIA

Piztu Tolosaldea 2021-2024 Energia planaren helburua:

Tolosaldeko eskualdean karbono baxuko modelo energetiko batera trantsizioa gauzatzea.

Horretarako, “Tolosaldeko eragile ezberdinei energia trantsizioak (modelo aldaketak) suposatzen dizkien erronkei aurre egiten eta sortzen diren aukera berriak baliatzen lagunduko du”.

Udalak

Enpresa

Herritarr

2. ESKUALDE MAILAN ENERGIA JASANGARRITASUNAREN IDENTIFIKATURIKO GAI NAGUSIAK

Politika nagusien azterketa eta eragile nagusiekin edukiriko elkarriketetan energiaren inguruan eskualde mailan garatu beharreko gai nagusiak identifikatu dira, hurrengo irudian laburbilduz. Kolore ilunean gehien azpimarratu diren gaiak adierazten dira. Argiagotan aldiz, aipamena duten beste gai batzuk aipatzen dira.



3. TGEN FUNTZIOAK ENERGIA JASANGARRITASUN GAIETAN

TGek nagusiki hiru eragile mota ezberdinei bideratzen dizkie bere zerbitzuak eta energia gaiak ere hala bideratuak izango dira:

Lehenik, udalei bideraturiko zerbitzuak eskaintzea funtzio nagusia izango da, bete-beharreko legedi eta ekimen ezberdinetan aholkularitza zerbitzuak eskainiaz.

Bigarrenik, Tolosaldea Garatzen, garapen agentzia den ikuspegitik, enpresei energia jasangarritasuna barneratzen eta soluzioak aurrera eramaten lagunduko die. Horretarako, TGek dituen sail ezberdinen arteko koordinazioa egongo da eta gaur egun sail hauek eskaintzen dituzten zerbitzuen inguruan energia jasangarritasun gaiak gehituko dira.

Hirugarrenik, herritarrengana iristea funtsezkoa izango da energia jasangarritasunaren garrantzia transmitituz eta pausoak ematen lagunduz.

Aipatzekoa da ere, eragile hauetaz gain, beste batzuek ere iristea espero dela, hala nola hezkuntza zentroak, enpresa elkarteak, landa garapen elkarteak eta abar.

Tolosaldea Garatzenek dituen eskumenak kontutan edukirik beteko dituen funtzio ezberdinak aukeratu dira. Identifikaturiko funtzioek. Funtzio hauek planeko lan lerro nagusiak definituko dituelarik.

Eskualde mailan energia gaien **koordinazioa** eramatea:

- Eskualde mailan dauden energia gaien ikuspegi orokorra edukitzea funtsezkoa izango da.

- Udalen arteko koordinazioa gauzatzea: Informazio elkar banatzea, kontratazio bateratuak egitea, dirulaguntzak lortzea, eta abar.
- Eskualdeko ekintzaile ezberdinen eta eskualdeaz gaindiko beste erakundeen arteko erlazioa erraztea.
- Eskualde mailan landu beharreko proiektuetan parte hartzea eta koordinazioa eramatea.
- Egon daitezkeen finantzazio iturrien koordinazioa eramatea.
- **Udalek** energia gaietan dituzten erronketan asistentzia ematea.
 - Eraikuntza eta instalazio publikoen hobekuntzarako asistentzia teknikoa eta informazioa erraztea gai ezberdinetan.
 - Bertako politiketan jasagarritasun energetiko gaiak sustatzeko asistentzia teknikoa.
- Eskualdeko **beste eragileei** (hiritarrei eta enpresei energia jasagarri neurriak hartzen laguntzea.
 - Eragile ezberdinek neurriak hartzeko pausuak ematen laguntzea. Horretarako gai zehatzetan bideratzen lagunduko zaie. Beste batzuetan, ekintza horiek aurrera eramatea lagundu dezaketen profesionalekin harremanetan jartzea sustatuko da.
- Bailarako **ehun ekonomikoan energia** (eta jasagarritasun) gaiek eduki dezaketen aukerak ikertzea eta erraztea.
 - Eskualdeko enpresa eta ekintzaileekin elkartu gai hauetan dauden ekintzak ezagutzera emateko eta identifikatu daitezkeen aukera berriak sustatzen laguntzeko.
- Energia gaietan **formakuntza eta sentsibilizazio kanpainak** aurrera eramatea.
- Tolosaldea Garatzen, energia erabilera eta kudeaketa eredugarria izatea.

1. PIZTU TOLOSALDEA 2021-2024 PLANA

Planak hurrengo lan lerroak- identifikatzen ditu:

- Piztu Tolosaldea Energia planaren (PTEP) garapena
- Tolosaldeako energia gaien koordinazioa
- Udal politika publikoa eta energia jasangarritasunaren inguruko ekintzak.
- Energia jasangarritasun ekintzak eskualdeko beste eragileekin.
- Ehun ekonomikoaren sustapena energia jasangarritasun alorrean.
- Informazioa, sentsibilizazioa eta formakuntza.
- Energia Jasangarritasuna Tolosaldea Garatzenen barruan.

IV. PIZTU TOLOSALDEA EKINTZA PLANA 2021 – 2024

Lan lerro bakoitzarentzat hurrengo 4 urteetan aurrera eramatea aurreikusten diren jarduera eta ekintza adibideak definitzen ditu, ekintza bakoitzak eduki dezakeen garrantzia eta urgentzia adierazten direlarik (1 eta 3 artean)

Garrantzia maila	1: Funtsezko ekintza. 2: Ekintza garrantzitsua. 3: Egiteko denbora eta aukera badago.
Urgentzia maila	1: Ahal den azkarren martxan jarri. 2: Lehenengo urtearen ondoren aurrera eraman. 3: 4 urteen barruan egitekoa.

Piztu Tolosaldea 2021-2024 planaren erabilera errazteko asmoz, urte bakoitzaren hasieran, urte horretan aurrera eramango diren ekintzak definituko dira, urteko plan exekutiboa garatuz, eta aurreko urteko ebaluaketan oinarriturik^{24*}

²⁴ Tolosaldea Garatzenek ekintza hauek aurrera eramateko errekurtsu ekonomikoak eta giza errekurtsuak mugatuak dira, eta urtero lortzen duen finantzazioaren arabera izango dira. GFAtik lorturiko finantzaketa.

Bestelako ekintzetarako lorturiko finantzaketa.
Hau dela eta, urteroko ekintza zehaztuak finantzazio egoeraren arabera moldatuak izango dira.

2. PIZTU TOLOSALDEA 2021-2024 PLANAREN ZIRRIBORROA

1.LAN LERROA Piztu Tolosaldea Energia planaren (PTEP) garapena

JARDUERAK	EKINTZEN DESKRIBAPENA	Partaideak	Nori zuzendua			Garrantzia	Urgentzia	Urtea			
			Adm.	Enpr.	Herrit.			21	22	23	24
1.1. Piztu Tolosaldea Energia plana 2021-2024 garatu.	- Energia planeko helburuak finkatu eta adostu. - Lau urterako ekintzak finkatu eta azpi ekintzak deskribatu.	TG Zuzendaritza	X			1	1	X			
1.2. Urteroko ekintza plana garatu, jarraipena egin eta ebaluaketa burutu.	- Urte bakoitzeko ekintza plana definitu urte hasieran (PTEP planeko ekintzetan, azpi ekintzetan eta urteko ebaluaketan oinarriturik). - Planaren garapena ebaluatu urte bakoitzaren bukaeran.	TG Udal Saila	X			1	2	X	X	X	X

2.LAN LERROA Tolosaldeako energia gaien koordinazioa

JARDUERAK	EKINTZEN DESKRIBAPENA	Partaideak	Nori zuzendua			Garrantzia	Urgentzia	Urtea			
			Adm.	Enpr.	Herrit.			21	22	23	24
2.1. Udalen arteko koordinazioa ahalbidetu: Tolosaldeko Energia Mahaia eta udalekin bilerak.	- Eskualdeko energia mahaia antolatu udal ordezkariekin (urtean 4 bilera gutxienez): Koordinazioa, gai zehatzen eztabaidatzea, esperientzia trukaketa, etab. - Udalekin bilera gehigarriak burutu beste gai/proiektu zehatzak eztabaidatzeko eta jarraipena egiteko. - Udal mailan garatzen diren planak identifikatu, aztertu eta PTEP planarekin alineatu.	TG Udal Saila Udalak	X			1	1	X	X	X	X
2.2. Gipuzkoako beste eskualdeetako garapen agentziekin koordinatu: Gipuzkoako "Energia Jasangarrirako Lurralde Mahaia" parte hartzea eta beste eskualdeekin binakako bilerak burutzea.	- GFAk antolatzen duen "Energia Jasangarrirako Lurralde Mahaia" delakoan parte hartu beste lurraldeekin koordinatuz eta sinergiak identifikatuz. - Urtean gutxienez bi bilera burutu beste eskualdeetako agentzietan aurrera daramatzaten ekintzen berri edukitzeko.	GFA Beste eskualdeak	X			2	2	X	X	X	X
2.3. GFArekin energiaren inguruko gaian koordinazio bilerak burutu.	- Urte bakoitzeko ekintzak koordinatzeko asmoz, urtean gutxienez bi bilera eduki GFAarekin ingurumen departamenduarekin (finantzazio hitzarmenaren inguruan). - Beharrezkoa denean, Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Departamentuarekin bildu, TGen enpresa sailarekin batera.	GFA Ingurumen Dept. GFA Ekonomia Sust.	X			1	1	X	X	X	X

JARDUERAK	EKINTZEN DESKRIBAPENA	Partaideak	Nori zuzendua			Garrantzia	Urgentzia	Urtea			
			Adm.	Enpr.	Herrit.			21	22	23	24
2.4. Energia gaiarekin zerikusia duten beste erakunde garrantzitsuenekin koordinazio eta eguneratze lanak burutu: EEE. IHOBE, Naturklima, etab.	- EEEekin urtero bilera bat (dirulaguntzen laburpena, energia esparruko zerbitzu eta proiektuen berri eduki, informazio koordinazioa, etab. - IHOBEekin urtean behintzat bilera bat: Beraien ekintzen berri eduki, Udalsareako ekintzen berri eduki, etab. - Naturklimarekin urtean behintzat bilera bat antolatu: Energia eta jasangarritasun gaietan aurrera daramatzaten lerroen berri edukitzeko (enpresei begirako ekintzak).	EVE, IHOBE, Energia Dept., Naturklima, etab.	X			2	2	X	X	X	X
2.5. Energia jasangarritasuna lantzen duten eskualdeko eragile publiko zein pribatuen arteko koordinazioa erraztu.	- Eragile publiko eta pribatuen artean interesgarri diren gaien inguruan bilerak antolatu eta agertu daitezkeen aukerak identifikatzeko eta aurrera eramaten laguntzeko. - Beharrezkoa ikusten den gaien inguruan jardunaldi irekiak antolatu. - Sortu daitezkeen proiektuetan parte hartu, adibidez, proiektu europarretan.	TG Udal Saila	X	X		3	3	X	X	X	X
2.6. Energia, jasangarritasun eta klima alorreko ekintzekin koordinazioa.	- Energia ekintzek jasangarritasun eta klima helburu eta ekintzekin dituzten sinergiak aztertu. - Gai ezberdinetako eragileekin eta planen artean koordinazioa. - Finantzazio amankomuna bilatu.	TG Udal Saila	X			2	3	X	X	X	X

3.LAN LERROA Udal politika publikoa eta energia jasangarritasunaren inguruko ekintzak

JARDUERAK	EKINTZEN DESKRIKAPENA	Partaideak	Nori zuzendua			Garrantzia	Urgentzia	Urtea			
			Adm.	Enpr.	Herrit.			21	22	23	24
3.1. Udaletan energia berriztagarri eta auto hornikuntza proiektuak gauzatzen lagundu.	- Proiektuak aurrera eramateko asistentzia eskaini: Teknikoa, dirulaguntzen eskaera antolamendua, formakuntza, etab. - Gai hau lantzen duen jardunaldiak antolatu (udalei bideratua).	TG Udal Saila Udalak	X			1	1	X	X		
3.2. Udal eraikuntza publikoetan efizientzia energetiko eta aurrezpenerako neurriak ezartzen lagundu.	- Proiektuak aurrera eramateko asistentzia eskaini: Teknikoa, dirulaguntzen eskaera antolamendua, formakuntza, etab. 04/2019 Legearen konplimenduaren inguruan egingo litzateke.	TG Udal Saila Udalak	X			2	2		X	X	
3.3. Elektro mugikortasuna sustatzeko neurriak ezartzen lagundu udal eraikin eta zerbitzuetan.	- Flota berritzean eta birkarga elektrikorako proiektuak aurrera eramateko asistentzia eskaini: Teknikoa, dirulaguntzen eskaera antolamendua, formakuntza, etab. - Birkarga elektrikoaren inguruan jardunaldiak antolatu (udalei bideratuak). - Elektromugikortasun arina sustatu (bizikleta elektrikoak, patinak, etab.).	TG Udal Saila Udalak	X			1	2	X			

JARDUERAK	EKINTZEN DESKRIBAPENA	Partaideak	Nori zuzendua			Garrantzia	Urgentzia	Urtea			
			Adm.	Enpr.	Herrit.			21	22	23	24
3.4. Energia kudeaketa integratua udal administrazioan inplementatzen lagundu aurrezpen energetikoak eta ekonomikoak lortuz.	- Udaletan energia kontsumo eta kostuen monitorizazioa egiten lagundu: Jardunaldi antolaketa, teknikariei laguntza eta jarraipena. - Kudeaketa erreminta informatikoa inplementatzea bultzatu. Erremintaren Kontratazioa eskualde mailan koordinatu. - Energia kontratuak berrikusten lagundu (kontratazioa hobetzeko asmoz).	TG Udal Saila Udalak	X			1	1	X			
3.5. Eskualde mailan udalek duten kontsumoen ikuspegi orokorra edukitzea	- Gestio erreminta aurrera eramaten bada, eskualdeko ikuspegi orokorra edukitzea.	TG Udal Saila	X			2	3		X		
3.6. 4/2019 energia legea betetzen lagundu eta jarraipena egin	- Bete beharren lista egin eta udal bakoitzaren inbentarioa burutu. - 4/2019 legeari buruzko jardunaldi tematikoak burutu. - Udalei energia-jardunketa planak garatzen lagundu edota eskualde mailakoa sortu. - Udalen energia ekintzen jarraipena egin eta betebeharren egoeren berri eman urtean behin.	TG Udal Saila Udalak	X			1	1	X	X	X	
3.7. Udaletako zerga politika garatzen lagundu.	- Urtero, zerga udaletan erabilitako zerga politiken laburpena egin. - Beste administrazio batzuetan erabilitako zerga mekanismoak udalei bertaratu: Jardunaldiak edota informazioa bertaratu.	TG Udal Saila Udalak	X			2	1	X	X	X	X
3.8. Eraikuntza berrietan, eraikuntzen birgaitzean eta hiri garapen proiektu berrietan energia jasagarritasun neurriak bultzatzeko udal politikak bultzatu.	- Udalek eraikuntza eta hiri-garapen proiektuetan dituzten baliabideak aztertu. - Aukera horiek existitzen badira, udalekin partekatu eta inplementatzen lagundu.	TG Udal Saila EJKo hirigintza dept. Udalak	X			3	3			X	X

4.LAN LERROA Energia jasangarritasun ekintzak eskualdeko beste eragileekin

JARDUERAK	EKINTZEN DESKRIBAPENA	Partaideak	Nori zuzendua			Garrantzia	Urgentzia	Urtea			
			Adm.	Enpr.	Herrit.			21	22	23	24
4.1. Pobrezia energetikoaren aurkako ekintzak aurrera eramán	- Bailarako pobrezia energetiko egoera jakiteko diagnostiko azkarra egin gizarte zerbitzuekin batera. - Pobrezia energetikoa lantzeko dauden mekanismoak identifikatu eta ezagutzera eman (azterketa egin, jardunaldiak antolatu). - Gizarte zerbitzu arduradunekin (eta beste eragileekin) koordinatu pobrezia energetiko neurriak aurrera eramateko. - Pobrezia energetikoa orokorki ematen den eraikuntzetan aurrera eramán daitezkeen ekintzak identifikatu.	TG Udál Saila Gizarte Zerbitzuak			X	1	2	X	X	X	
4.2. Etxeetan herritarrei energia berriztagarri eta auto hornikuntza proiektuak aurrera eramán lagundu.	- Auto hornikuntza proiektu aukerei buruzko azterketa egin: Proiektu motak, adibideak, dirulaguntzak, etab. - Identifikaturiko aukerak ezagutzera eman (jardunaldi bidez).	TG Udál Saila			X	2	2			X	
4.3. Etxeetan efizientzia energetikoa sustatzen lagundu.	- Efizientzia energetikoa eta etheen birgaitzean dauden aukerak aztertu: Proiektu motak, adibideak, dirulaguntzak, etab. - Identifikaturiko aukerak ezagutzera eman (jardunaldi edota bilera bidez).	TG Udál Saila			X	2	3			X	X
4.4. Enpresa (zerbitzu eta industria) txiki/ertainetan energia berriztagarri eta auto hornikuntza proiektuak aurrera eramán lagundu.	- Enpresek auto hornikuntza proiektuekiko duten ezagutza eta interesa aztertu, enpresa departamenduko kideekin batera. - Energia berriztagarriak eta auto hornikuntza enpresetan sustatzeko proiektuak aurrera eramateko informazioa eta aukerak aztertu. - Identifikaturiko aukerak eta adibide onak ezagutzera eman (jardunaldi edota bilera bidez).	TG Enpresa saila TG Ekintzailatza saila TG Turismo saila TG Udál Saila		X		2	2		X	X	

JARDUERAK	EKINTZEN DESKRIBAPENA	Partaideak	Nori zuzendua			Garrantzia	Urgentzia	Urtea			
			Adm.	Enpr.	Herrit.			21	22	23	24
4.5. Enpresa (zerbitzu eta industria) txiki/ertainetan energia aurrezpen eta efizientzia neurriak aurrera eramaten lagundu.	- Enpresek aurrezpen eta efizientzia gaietan duten egoera eta interesa aztertu, enpresa departamenduko kideekin batera. Zein beste eragileekin lan egiten duten eta zein zerbitzu jasotzen dituzten jakin. - Energia aurrezpena eta efizientzia enpresetan sustatzeko proiektuak aurrera eramateko informazioa eta aukerak aztertu: Dirulaguntzak, enpresa espezializatuak, etab. - Identifikaturiko aukerak ezagutzera eman (jardunaldi edota bilera bidez). - Gestio energetikorako aukerak ezagutzera eman.	TG Enpresa saila TG Ekintzailatza saila TG Udal Saila		X		3	3			X	X
4.6. Komunitate energetikoen sorrera bultzatu.	- Udal administrazio, enpresa edo/eta herritarren artean komunitate energetikoen plangintza aurrera eramateko aukerak aztertu, informazioa sortu. - Jardunaldi bidez, komunitate energetikoei buruzko informazioa erraztu (aukerakoa). - Komunitate energetiko inizatibean sorreran lagundu (dirulaguntza eskaerak, intermediarioa, aholkularitza teknikoak, etab.).	TG Enpresa saila TG Ekintzailatza saila TG Udal Saila	X	X	X	1	1	X	X		
4.7. Elektro mugikortasuna eskualdean sustatu	- Elektro mugikortasun (birkarga elektrikoa, flotak) proiektu moten eta aukeren azterketa egin (Teknologia motak, negozio modelo motak, etab.). - Elektromugikortasun proiektuak (flotak eta birkarga elektrikoa) aurrera eramateko laguntza eskaini sektore pribatuari. - Elektromugikortasunari buruzko jardunaldiak antolatu.	TG Enpresa saila TG Ekintzailatza saila TG Udal Saila	X	X	X	2	2	X	X	X	

5.LAN LERROA Ehun ekonomikoaren sustapena energia jasangarritasun alorrean

JARDUERAK	EKINTZEN DESKRIBAPENA	Partaideak	Nori zuzendua			Garrantzia	Urgentzia	Urtea			
			Adm.	Enpr.	Herrit.			21	22	23	24
5.1. Tolosaldean energia jasangarritasun eta berrikuntzarekin zerikusia duten enpresak identifikatu eta ezagutzera eman.	- Industria eta zerbitzu enpresen azterketak egiterakoan energia, jasangarritasun eta berrikuntza bektoreak gehitu: TGko Enpresa, ekintzailatza eta turismo saileko inizatibekin bat egin. - Enpresa eta proiektuak ezagutzera eman bide ezberdinen bidez (argitalpen, web, jardunaldi, etab.).	TG Enpresa saila TG Ekintzailatza saila TG Udal Saila		X		2	2	X	X		
5.2. Tolosaldean energia jasangarritasunaren inguruan egon daitezkeen proiektuak gauzatzen lagundu.	- Energia eta jasangarritasun alorren inguruan egon daitezkeen proiektuak eta negozio aukerak identifikatu. TGeko beste sailekin batera garatuko da. Ahal den kasuetan, interesgarri diren balio kateak identifikatu. - Eskualde mailan martxan jartzen diren proiektuetan (proiektu piloto, elkarlan proiektuak) eragile publiko bezala parte hartu.	TG Enpresa saila TG Ekintzailatza saila TG Udal Saila		X		2	3			X	X
5.3. Energia, jasangarritasun eta berrikuntzarekin zerikusia duten inizatiba berriek eskatzen duten langileen formakuntza identifikatu eta sustatzen lagundu.	- TGeko beste sailekin batera beharrezkoak diren ezagupenak eta formakuntza identifikatuko da. - Ezagutza eta formakuntza hori sustatzeko, eskualdean (Eta inguruan) egon daitezkeen eragile ezberdinekin hitz egin.	TG Enpresa saila TG Ekintzailatza saila TG Udal Saila		X		2	3		X	X	X

6.LAN LERROA Informazioa, sentsibilizazioa eta formakuntza

JARDUERAK	EKINTZEN DESKRIBAPENA	Partaideak	Nori zuzendua			Garrantzia	Urgentzia	Urtea			
			Adm.	Enpr.	Herrit.			21	22	23	24
6.1. Energia Bulego "birtuala" sortu	- Energia bulegoari buruzkoa erreflexioa aurrera eraman (zein bulego mota sortu erabaki). - TGeko web orrian bulego birtuala txertatu. - Energia jasangarritasun edukiak web orrian nola azaldu adostu.	TG Udal Saila		X	X	1	1	X			
6.2. Energia Bulego "birtuala" kudeatu	- Energia bulegoaren kudeaketa eta mantenua egin. - Energia bulegora iristen diren galderen erantzunak kudeatu.	TG Udal Saila		X	X	1	2		X	X	X
6.3. Energiarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten sentsibilizazio eta informazio kanpainak sustatu edo lagundu	- Izpi superheroia inizatiba aurrera eraman. - EA2030 programaren dinamizazioa egin (garapen jasangarriko helburuen inguruko hezkuntza programa) - 50/50 ekimena ikastetxeetan martxan jarri - Pobrezia energetikoa jasaten duten kolektiboekin ekimen zehatzak aurrera eraman.	TG Udal Saila Udalak Ikastetxeak	X	X	X	2	3		X	X	X
6.4. Udal teknikarien formakuntzaren jarraipena egin.	- Udal teknikariek beharrezkoa duten formakuntza jasotzen duten aztertu (Usurbilgo eskolako formakuntza kurtsoak adibidez). - Energia mahaian urtean behin gaia atera. - Beharrezkoa den kasuetan, jardunaldi eta kurtso antolaketa bidez, teknikarien formakuntza osatu.	TG Udal Saila Lanbide eskolak	X			3	2				

7.LAN LERROA Energia Jasangarritasuna Tolosaldea Garatzenen barruan

JARDUERAK	EKINTZEN DESKRIBAPENA	Partaideak	Nori zuzendua			Garrantzia	Urgentzia	Urtea			
			Adm.	Enpr.	Herrit.			21	22	23	24
7.1. Lehiberri Zentroan kudeaketa energetikoa egokia, efizientzia energetiko neurriak eta energia berriztagarriak sustatu.	- Lehiberri eraikinaren proiektua energia ikuspuntutik ber begiratu. - Eraikinaren kudeaketa ber begiratu. - Energia kontsumoa eta gastua monitorizatu.	TG Udal Saila Mantenu arduradunak	X			2	3			X	
7.2. Eraikuntzako erabiltzaileen artean energia erabilera egokia sustatu	- Eraikuntzaren erabilerarako gomendioak identifikatuko dira eta elkarbanatuz, bai energiari eta baita konfortari kasu eginez.	TG Udal Saila	X			1	2		X		